

AURKIBIDEA

Urriaren 22an, URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA.....	4
Urriaren 29an, URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA.....	12
Azaroaren 1ean, SANTU GUZTIEN FESTABURUA	20
Azaroaren 2an, HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA.....	28
Azaroaren 5ean, URTEAN ZEHARREKO XXXI. IGANDEA	35
Azaroaren 12an, URTEAN ZEHARREKO XXXII. IGANDEA.....	42
Azaroaren 19an, URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA	49
Azaroaren 26an, JESU KRISTO ERREGEA	56

Urriaren 22an
URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA

Domund, Misio Jardunaldia

Agurra

Batzarrean biltzen gaituen Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Beste urte batez, urriko azken-aurreko igande honetan Munduko Misio igandea, DOMUND, dugu gaur goiburu honekin: «Oinak bidean, bihotza adorez». Elizan jabetu nahi dugu ate irekiko eliza izan behar dugula eta ebanjelizatze lana ez dela toki gutxi batzuetara mugatzen.

Jesusek berak gonbidatzen gaitu bidea ekitera, gure erosotasunetik jaiki eta Jainkoaren Maitasunaren berri ona ezagutzen ez dutenengana joatera. Eukaristiak piz dezala gure bihotza maitasun horretara, gauden toki orotan zabal dezagun.

Damu-otoitza

Gizaki guztiak salbatzaera eta egia osoa ezagutzera iristea nahi du Jainkoak; eska diezaiogun Jesu Kristogan oparitzen digun grazia salbatzailea.

- Jesus Jauna, zuk pizten duzu elizaren misio-garra: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zuk onartzen gaituzu guztiok Elizan: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, zuk bidaltzen gaituzu munduaren barrena Berri Ona zabaltzera: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko,
gizon-emakume guztiak salbatzea nahi duzu
eta egia ezagutzera iristea;
begira zein ugaria den zure uzta,
eta bidal, bihotz onez, langileak uzta hori biltzera,
izaki guztiei zure Berri Ona hots egin diezaieten
eta zure herriak,
biziaren hitzak elkaturik eta sakramentuen indarrak eutsirik,
aurrera egin dezan salbamen- eta maitasun-bidean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Presta gaitezen Jainkoaren Hitza entzuteko: gutako bakoitzari zuzendua da, bere maitasuna adierazten digu Hitz horren bidez eta bidali egiten gaitu, misiolari moduan, Ebanjelioa bizitzera eta iragartzera.

Lehenengo irakurgaia (Is 45, 1. 4-6)

Isaias Profetaren liburutik

Jauna honela mintzo zaio Ziro erregeari, berak aukeratu eta sagaratuari:

«Eskutik heldu dizut, nazioak zure menpean jartzeko eta erregeei soinetik armak kentzeko; zure aurrean hirietako atak erabat zabaltzeko. Jakob neure zerbitzariagatik, Israel neure aukeratuagatik deitu zaitut zeure izenaz eta bete zaitut ohorez, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik; ez da jainkorik, Ni baizik. Aginpidez jantzi zaitut, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren, ekialdetik mendebaldera jakin dezaten ez dela inor Ni besterik. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik».

Erantzun-salmoa (*Sal* 96 [95], 1-3. 4-5. 7-8. 9-10ac)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be - re be - ti - ko e - rru - ki - a.

- ∇. Kanta Jaunari kantu **berria**,
kanta Jaunari, lur **oso**a!
Zabaldu haren ospea nazi**o**etan,
haren mirariak herri guz**t**ietan. ∇.
- ∇. Handia baita Jauna, guztiz gores**gar**ria,
jainko guztien aldean beldur**gar**ria.
Ez dira ezer atzerritarren jainko **guz**tiak;
Jaunak, ordea, zeruak dit**u** egin. ∇.

- ✠. Goretsi Jauna, munduko **herriok**,
goretsi Jaunaren ospea eta **indarra**,
goretsi Jaunaren izen **ospetsua!**
Sartu haren tenpluan eskaintzak **eramanez**. ✠.
- ✠. Gurtu Jauna, hura santutasunez **agertzean**,
ikara zaitez, lur osoa, haren **aurrean**.
Esazue nazioetan: «Errege **da** Jauna,
herriak zuzenbidez ditu **epaitzen**». ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ts 1, 1-5b)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik Paulok, Silvanok eta Timoteok, Jainko Aitarekin eta Jesu Kristo Jaunarekin bat eginik dagoen Tesalonikako eliz elkarteari: grazia eta bakea zuei.

Eskerrak ematen dizkiogu beti Jainkoari zuek guztiongatik, gure otoitzetan gogoan zaituzteguna. Jainko gure Aitaren aurrean gogora dakargu etengabe zuen sinesmen ekintzailea, zuen maitasun saiatua eta Jesu Kristo gure Jaunagan duzuen itxaropen iraunkorra.

Badakigu, senideok, Jainkoaren maiteok, berak aukeratu zaituztela. Izan ere, guk zuei hots egindako Berri Ona ez genizuen hitz hutsez eman, baizik baita Espiritu Santuaren indar beteaz ere..

Aleluia (*Flp 2, 15d-16a*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

∇. Izarrek munduan bezala egiten duzue argi gizarte honetan,
Bizia ematen duen mezuari tinko eutsiz. ∇.

Ebanjelioa (*Mt 22, 15-21*)**Homiliarako argibideak**

Gaur normala iruditzen zaigu Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa. Botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko bereizketa ere atsegingo genuke. Jesusek, ordea, botere guztiak nahasita zueden garaia ezagutu zuen: erlijiosoak, politikoa, ekonomikoa... denak herria zapaltzeko. Jesus izan zen hain zuzen, errealitate hartan beste bide bat zabaldu nahi izan zuena: heriotzaraino eramango zuen bidea, hain zuzen ere.

Zergei zegokienean, Jesus ez zen sartu jarri zioten trikimailuaren sarean, garbi asko esan zuen Jesusek ulertu nahi zionarentzat esan beharrekoa, fariseak eta herodeszaleak ondo ulertua izango duten, gaienera, Jesusi horrek eragin zion guztiarekin. Jesus ez zen sartu zergen afera zehatzean (*Mt 22,15-21*). Sustraira joan zen, erromatarren okupazioak herriari zerkarkion arazora. Indarrez ezarritako zerga zen, Jainkoaren nagusitza baztertu eta nagusi egin denaren zerga. Jainkoaren eta gizakiaren irudirik ez egiteko agindua hausten zuen indarra zen enperadorea, jainkoen pare bazter guztietan azaltzeraino. Jesusek ezin zuen onartu giza botere batek

herria Egiptoko esklabotzatik askatu zuen Jainkoa baztertzerik.

Birao gertatzen zitzaion botere mota hura salatzeaz batera, judu konplizeak ere salatzen ditu, tenpluko agintariak, alegia, egoera horretatik etekina ateratzen baitzuten: ona zuten orduan erromatarren dirua, zergatik zetorkiena. Erromako nahiz judeako agintariak bat egiten zuten herria estutzean. Jesusek denak salatu zituen: farisearrak, herodeszaleak, apaizak eta tenpluko agintariak... tenplua diru-toki bihurtzen zutenak. Agintari erlijiosoek, ordea, ezin onartu zuten Jesusen askatasuna eta erromatarren esku utzi zuten gurutziltza zezaten.

Jesusek zalantzan jarri zuen Jainkoa beren interesetarako erabiltzen zuen egitura politiko eta elijioso, herriari zamak ezartzen zizkiona. Bere tokian jarri zuen bakoitza. Horrek ez du esan nahi, ordea, agintariak Jainkoarengandik aparte zeudenik, nahi zutena eginez diruari zegokionean bereziki. Jesusentzat, dirua ere Jainkoaren asmoen arabera erabili behar da: behartsuenen zerbitzura eta hauek lehenetsiz.

Misioen eguna dugu gaur, lehen ere aipatu dugunez. Egun honek eskuzabal izatera deitzen gaitu, baita diruz ere eskuzabal, herrialde behartsuenetako Eliza hasiberriekin.

«Oinak bidean, bihotza adorez» horra misiolariaren jarrera. Beti norbere baitatik ateratzen, elkartera, elkarren bidera. Ezin dugu bakarka bizi, beste aldera begira. Mundua ezagutzeko eta maitatzeko deia egiten zaigu, mundu horren erdian Jaunaren testigu izateko.

Kristo ari da eliza bere baitatik aterarazten. Berri ona zabaltzera bidaliak gara, Jaunaren dei horri erantzunez, eta mundu osoari jakinaraziz inor ez dela Jainkoaren maitasunetik kanpo geratzen.

Eukaristiaren ospakizunak bete gaitzala pozez eta egin gaitzala egiazko testigu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Bihotz adoretsez, eska diezaiogun Jainkoari Elizaren oinek ez diezaioten sekula utzi bidean ekiteari:

- Ebanjelioaren iturri eta fritu den Elizaren alde, Jainkoaren maitasunaren Berri onak denok itxaropenez bete gaitzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Frantzisko Aita Santuaren alde, ebanjelizatzaile eta misiolari diren fededun guztien alde, Kristoren Erreinua gauzaten aspergabe lan egin dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Zailtasun eta guzti misiolari diren guztien alde, nekatuak eta gogogabetuak bizi direnen alde, gure otoitzak eta eskuzabaltasunak bere nekeetan lagun diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Oraindik Jesu Kristo ezagutzen ez dutenen alde, begiak eta bizitzak federa irekiko dizkieten testiguak aurki ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.

Onar, Aita ona zure seme-alabon otoitzak; fedez zuzentzen dizkizugu Elizaren beharren alde eta Lurreko behartsuenen alde. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Begira, Jauna,

bere burua guztion salbamenerako eman zuen zeure Kristori;

egizu, eguzki alde batetik besteraino,

zure izena gorets dezatela herri guztietan,

eta Zuri, Jaun handi horri,

eskain diezazutela opari garbia alde guztietan.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 29an
URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA

Agurra

Jainkoaren hitza entzun eta gure sinesmena ospatzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batzar honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristia beti da elkarrengana maitasunez biltzeko dei bat. Antzeko deia dugu Ebanjeliokoa ere, elkar maitasunean eta elkarren laguntzat bizitzeko deia.

Mundu gizakoiago eta “zentzuzkoagoa” behar dugu, eta Jainkoaren Hitzak eta Eukaristiako ogiak ematen dizkigu horretarako argia eta indarra.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiozun errukia Jainkoari

- Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera **e**torri zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia **e**man duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak **b**iltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
sendotu gudan sinesmena, esperantza eta maitasuna;
eta egizu, hitzematzen diguzuna lortu ahal izateko,
maita ditzagula Zuk aginduak.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren borondatea, etorkina, alarguna eta umezurtza laguntzea zen Itun Zaharrean ikusiko dugunez. Gaur baditugu behartsu eta ezindu berriak ere. Maitasunez onartzea eta zaintzea dagokigu.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 22, 21-27*)

Irteera liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Ez gaizki erabili, ez zapaldu etorkina, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton.

Ez egin kalterik alargunari eta umezurtzari; zeren, kalte egiten badiezue, haiek Nigana laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo baitiet, sutuko da nire haserrea eta ezpataz hilko zaituztet; orduan, zuen emazteak bihurtuko dira alargun, eta zuen seme-alabak umezurtz.

Zuekin bizi den nire herriko behartsuren bati dirua maileguz ematen badiozu, ez izan zikoitz berarekin, ez ezarri interesik. Zeure lagun hurkoari soingainekoa hartzen badiozu bahituran, itzul iezaiozu eguzkia sartzerako; ez baitu hori beste estalkirik.

Zerez babestuko da, bestela, lo egiteko? Laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo diot, errukiorra bainaiz Ni».

Erantzun-salmoa (Sal 18 [17], 2-3b. 3c-4. 47 eta 51ab)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

- ✘. Maite zaitut, Jauna, nire **indar**!
 Jauna da nire haitz, nire **gatzelu**,
 bera nire askat**zai**le. R/.
- ✘. Ene Jainko, ene harkaitz babesgarri,
 ene babeski eta salbamen-indar, '
 ene gordeleku go**res**garri.
 Dei egin nion **Jaunari**,
 eta salbatu ninduen etsaieng**andik**. R/.
- ✘. Gora Jauna! Bedeinkatua nire **harkaitza**!
 Goratua nire Jainko salbat**zai**le,
 garaipen handiak eman dizkio erre**ge**ari,
 maitasuna agertu dio bere gantzutu**ari**. R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ts 1, 5c-10)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik Senideok: Ongi dakizue zuen artean egin genuen guztia zuen onerako izan zela. Eta zuek gu eta Jauna eredutzat hartu gintuzuen,

Espiritu Santuaren pozez onartu baitzenuten Jainkoaren mezua, atsekabe askoren artean izanik ere. Horrela, eredu gertatu zarete Mazedoniako eta Akaiako fededun guztientzat.

Hain zuzen, zuenetik zabaldu da Mazedoniara eta Akaiara Jaunaren mezua; eta eskualde horietara ez ezik, bazter guztietara ere iritsi da Jainkoagan duzuen sinesmenaren entzutea, guk ezer esan beharrik gabe. Izan ere, haiek kontatzen dute nolako harrera egin zeniguten zuengana joan ginenean eta nola, sasijainkoak utzirik, Jainko bizi eta egiazkoagana itzuli zineten, bera zerbitzatzeko eta zerutik etorriko den haren Seme Jesusen zain egoteko. Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen Jesus, eta honek askatu gaitu etortzekoa den haserre-zigorretik.

Aleluia (Jn 14, 23b)

Al - le - lu - ia, al - le - lu - ia.

℣. Ni maite nauenak gordeko du nire hitza, dio Jaunak;
nire Aitak maite izango du,
eta Aita eta biok harengana etorriko gara. ℟.

Ebanjelioa (Mt 22, 34-40)

Homiliarako argibideak

Maitasuna ez da maitatua

San Frantziskoren biografo batek kontatzen du pasadizoa: behin batean, Asisko gizona basoan barrena omen zihoan garrasi batean,

«maitasuna ez da maitatua» oihukatuz. Nonbait berak garbi ikusten zuen Jainkoak emandakoaren eta gizakion erantzunaren arteko etena. Gizakiok ez diogu sekula egoki erantzungo Jainkoaren maitasunari. Egia da, desegokitasun hori estaltzeko bide asko erabili izan dugula eta erabiltzen dugula, baina maitasunaren aurrean nekez estali daiteke esker txarraren erantzuna.

Maitasun hitza hitzetik hortzera erabiltzen dugu, gaur inoiz baino gehiago. Eta gizartean egiten den erabilera alde batera utzita, geure kristau-esparruan egiten duguna aztertu beharko genuke. Garai bateko jarrera batzuk gaingitu ditugu, ustez. Moralkeria hura, legekeria hura! Gaur badakigu kristau-izatea maitasunaren sintonian jokatzen dela. Jainkoaren irudia bera, gaur garbi daukagu ez dugula arauen galbahetik zehaztu behar, maitasunaren ikuspegitik baino. Eta jarrera hauen kontra ez dago ezer esaterik; barruan zer gordetzen duten eta zer erakusten duten da aztertu beharrekoa.

«Maita ezazu» entzuten dugu gaur behin eta berriz. Kontua ez da analisi sakon eta luzeetan sakabanatzea. Maitatzeko onena maitatzen hastea da. Bi eratara gerta daiteke maitasunaren miraria. Bihotza janarizetik sor daiteke maitasuna, barrua garatuz heldutasun gizatiar eta espiritual baten bidetik. Orduan maitasuna barne-bizitza egiten zaizu, bizitzaren iturburu. Eta onginahizko, bihotz handiko, entregazko sentimendua sortzen zaizu barru horretatik. Edo sentimendua izatera iristen ez bada ere, bestearekiko irekitasunera eramaten zaitu, barkatzera...

Maitasunaren mirariak badu bigarren bide bat ere: maitasuna praktikatzen hastea da, zeure esparrutik ateraz. Besteentzako prest bizitzen hasi, gizarte-ekintzetan parte hartu, pertsonarteko harremanetan arduratsu izan... Hori ere normalean bihotzetik sortzen da. Egia da, batzuetan betebeharrak hutsa dela ematen duela. Betebeharra ematen duenean ere, lagun hurkoaren aurpegi zehatzei

begiratzeko jakin behar du, pertsona konkretuei begiratzeko, orokorkerietan geratu gabe. Sufritzen duten aurpegietatik sortzen den etikaz ari gara. Jarrera hori beti barrukoa eta sakona izaten da.

Azken batean, geuretik ateratzea da kontua, ahaztu behar ez dugun zehaztasuna. Garbi utz dezagun, hala ere, beti ez dela sakrifizioa eta autonegazioa. Iturriaren gorabeheran ari gara: Ni norena naiz? Nire bizitza norena da, neurea ala Bestearena? Hori da kristaumaitasunaren iturburua. Eta hor urtzen dira gure bereizkeria eta etenak; hor batzen da da maitasuna, Jainkoarekikoa eta lagun hurkoarekikoa. Maitasuna bakarra baita. Eta maitasun bakarraren iturritik edatea da dagokiguna.

Nola berriro maitasunaren iturriak, nola edan maitasunaren iturritik? Zeintzuk dira niretzat zehazki maitasunaren iturriak? Otoitza izan daiteke. Bikote barruko maitasuna izan daiteke. Inguruan eguneroko zeregin txikiengan maitasuna era xume eta garbian bizi duen jendea izan daiteke. Inguruan dauzkadan pobreak izan daitezke. Seme-alabak izan daitezke. Kristau-elkarteak izan daitezke. Bistakoa da prozesu sakon bat dagoela azpian.

Igande honetako testuak aditzean, gerta daitezke sententzio desberdinak izatea. Bati akaso betebeharra etorriko zaio gogora. Beste batek akaso, betebeharra gainditu zuela eta, ez du bere maitasun-bizitzarako iturria ikusiko. Beste batek, beharbada, maitasuna ez duela maite sentituko du, hutsune handia alegia. Beste batek esker txarra. Nolanahi ere, denok egin beharko genuke, gaurko hitza Jainkoaren maitasunetik entzuteko ahalegina. Aita batek bezala argitzen dizkigu gure bideak: «Maita ezazu». Betebeharra den maitasunetik bizi-iturri den maitasunera pasa behar dugu, farisearraren parean ez gelditzeko. «Maitasuna ez da maitatua».

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunari egindako otoitzak Berak bihotz onez entzuten dituela jakinik, egigun otoitz apaltasunez:

- Jaunak indarra eta argitasuna eman diezaien Jose Ignazio gure gotzainari eta Elizako artzain guztiei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Neurrigabeko ezberdintasunak gainditurik, herrietako arduradunak denon ongizatearen alde saia daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Sufritzen duten guztiek kristau-elkartearen bidez presente egiten den Jaunaren indarra eta laguntza izan dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bildu garenok eta gure etxeko eta adiskide guztiok, itxaropenez eta elkarri on eginez bizi gaitezten. Eska diezaiogun Jaunari.

Zailtasunean babes zaitugun Jauna, entzun gure otoitzak eta egizu, Zure Espirituaz beterik utz dezagula Zugandik urruntzen gaituen guztia eta itzul gaitezela Zu eta lagun hurkoa egiaz maitatzera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

**Aita guztiz ona,
begira Zuri, Jaun handi horri, ekarri dizkizugun dohain hauei
eta egizu, gure zerbitzuaren
adierazpen den eskaintza hau irits dadila Zugana
eta gorets dezala zure izena
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, gure fedearen sakramentu honek
egin dezala gugan berak adierazten duena,
orain irudiz egiten duguna
gero egiaz eta bete-betean har dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 1ean **SANTU GUZTIEN FESTABURUA**

Agurra

Santutasunera dei egiten digun Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Santu guztien festaburu honek poza eta itxaropena sortzen ditu gugan. Poza: gure senide ugari bizitza honetan Kristorekin bat egin ondoren orain zeruko zorionean bizi direlako. Itxaropena: haien ereduarekin eta laguntzarekin guk ere Kristoren bide hori bera egin dezakegulako eta santuen zorionera iritsi. Santuekin bizi dugun batasun-misterio hori Eukaristian era berezian agertzen dela jakinik ospatzen dugu esker onezko batzar hau.

Damu-otoitza

Senideok: itxaropenez beterik jo dezagun Kristorengana eta eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, Zu zara Jainkoaren Santua. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zuk santu izatera deitzen gaituzu. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara santu guztien saria. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santu Guztien merezimenduak
egun berean ospatzea ematen diguzu;
horrenbeste laguntzaile dugunez gero,
emaguzu oparo, eskatzen dizugun errukia eta barkamena.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Zoriontsu nahi gaitu Jesusek, garaileen taldeko, Jainkoaren maitasuna ezagutu eta bizi dutenenen batzarkide. Horretarako gurutzea da bidea, eskaintza da modua, zerbitzua da baldintza.

Lehenengo irakurgaia (*Ap 7, 2-4. 9-14*)

Apokalipsia liburutik

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamena».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean eta Jainkoa adoratu zuten, esanez: «Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

Erantzun-salmoa (Sal 24 [23], 1-2. 3-4b. 5-6)

Kan - ta Jau - na - ri jai ho - ne - tan, san - tu guz - ti -
 en o - ho - re - tan.

- ∞. Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen duena,
 mundua eta bertan bizi direnak,
 hark ezarri baitu itsasoen gainean,
 hark finkatu lur azpiko ibaien gainean. ℞.
- ∞. Jaunaren mendira nor igoko?
 Haren toki santuan nor egongo?
 Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituena,
 sasijainkoetara jotzen ez duena. ℞.
- ∞. Horrelakoa bedeinkatuko du Jaunak,
 justizia egingo dio Jainko salbatzaileak.
 Hau da haren bila saiatzen den gizaldia,
 Jakobean Jainkoaren aurpegi bila dabilena. ℞.

Bigarren irakurgaia (1 Jn 3, 1-3)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako.

Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalako ikusiko baitugu.

Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezalaitxaropen hau duen guztia garbitu egiten da, Hura garbia den bezala.

Aleluia (Mt 11, 28)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

∞. Zatozte Nigana nekatu eta zamatu guztiok,
eta Nik arinduko zaituztet, dio Jaunak. ∞.

Ebanjelioa (Mt 5, 1-12a)**Homiliarako argibideak**

Cure aurretik igaro dira

Ekialde Ertaineko krisiaren ondorioz, krudelki jazartzen dituzte kristauak gerraren eraginpean dauden herrialdeetan. Aukera gutxi

dituzte. Kristau aitortzeagatik, arriskuan jartzen dituzte euren bizia eta Elizaren jatorriak. Eliza bekataria da, noski, baina baita santu ere. Martirien, karitatearen eta maitasunaren Eliza, pobreen Eliza, letraren eta espirituaren eskaera guztiakin saiatzen da, egun, ebanjelioa bizitzen. Lehen mendeetan, basamortura erretiratzen ziren martiri eta monjeekin lotuta zegoen santutasuna. Gaur egun, berriz, **solidaritatearekin, partekatzearekin, justiziaren bilaketarekin** dago lotuta.

Santuak pertsona apartak zirela pentsatu dugu beti, heroia modukoak, miresgarriak imitagarriak baino gehiago. Orain konturatu gara santuak ez direla heroiak izan, **Jainkoaren eta Jesu Kristoren lekukoak** baino ez. Horixe izaten saiatzen gara gu ere. Horregatik, Eliza primitiboan araua zen santutasuna, eta ez salbuespena. Jaun berpiztuari jarraitzen dion jendetza gisa ageri dira santuak (*Apk 7, 2-4. 9-14*). Santuak martiriak izan ziren guztiaren gaitetik, euren lekukotza odolez zigilatzeke gai izan baitziren. Asko eta asko dira, ordea, euren lekukotza santuen bizimoduarekin zigilatu duten fededunak.

Jainkoarena eta Jainkoarengan eta Jainkoarentzat bizi direnena da santutasuna. Jesus bera da lekuko handiena. Jesusen bizimodua laburbiltzen da **Zoriontasunetan** (*Mt 5, 1-12*). Jesusek irudikatu ditu munduan Jainkoaren santutasuna dirdirazten duten balio ebanjeliko berriak. Santutasun hori ez da mundu honetako pobreenganako eta galtzaileenganako baldintzarik gabeko maitasuna baino. Jesus zoriontsu bizi izan zen pobrezian, eragin gabezian, Jainkoarenganako eta besteenganako konfiantza xaloan. Haren begirada gardenak Jainkoaren presentzia ikusarazten zion denak galduta zirudien lekuan. Baztertu egin bazuten ere, ez zuen zoriontasuna galdu. Konbentziturata egon zen maitasunaren Jainkoak bere Erregetza ekarri nahi zuela mundu honetara eta munduko

botereek ezingo dutela eragotzi Jainkoa errege izan dadin. Jainkoaren maitasuna, Jesus alboratzen duten gure bazterkeria eta gorroto guztiak baino indartsuagoa da.

Fedeko pertsonak izan dira santuak batez ere, Jainkoari zabaldu eta euren bizitzan **Jainkoaren maitasuna** hartu dutenak, maitasunaren zirkuitu horretan sartu, eta Jainkoaren maitasuna euren bitartez pertsona guztiengana hel dadin utzi dutenak, onengana eta gaiztoengana, lagunengana zein etsaiengana (*1 Jn 3, 1-3*). Horregatik, santuetan beteta ikusten dugu Jainkoak kreazioaren unean eduki zuen giza ideala.

Denok gaude santutasunera deituta. Jainkoa ez zaio pribilegiatu taldetxo bati bakarrik ematen. Denokin komunikatzen da eta santu egiten gaitu, eta santutasuna bizitzera gonbidatzen gaitu, bere seme-alaba gisa bizitzera. Santutasunerako dei hori zen lehen kristauen bizitzaren motorra. San Paulok maiz ekartzen du gogora: **santuak zarete, bizi santuak bezala**. Santuak gara bataio-egunetik, horrek egiten gaitu Jainkoaren seme-alaba. Itxaropen hori duena egunero purifikatzen da. Bekatuarekin hausten saiatzen da, egunez egun Jainkoaren maitasunena gero eta gehiago sinesten duen lekuko bat izateko. Jainko santuak ez du santutasuna beretzat gordetzen. Guztiok jakinarazten digu. Horregatik ospa dezakegu salbazioa eukaristian, eta zeruko santuen Elizari lotuta sentitu. Haien animatzen gaituzte gure mundua hobetzeko lan egitera, itxaropena eta kristau maitasuna jarrita

Jainkoaren herriaren otoitza

Beren bizialdian lurraren gatz eta argi izan ziren santu guztien laguntzarekin zuzen diezazkiogun gure otoitzak Jaunari:

- Jaunak sor ditzala gaur ere eredugarri izango zaizkigun gizon-emakume santuak, Jaunarekin batuago eta senideekin eskuzabalago bizitzen ikas dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Ebanjelioaren berri ona ezagutzen ez dutenek, jaso dezaten santuen testigantzaz bere bizitza gozatuko duen argia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bere bizitzan nekeak pairatu zituzten santuen ereduak, lagun diezaiela sufritzen duten guztiei kementsu irauten eta bizimodu hobearen alde lehiatzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur santu guztiak ospatzera bildu garenok, bil gaitzela egun batean gure senide hildako guztiekin Kristoren aintzazko erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Aita ona, Zure erreinuan aintzaz janzten dituzu Senarraren zain erne bizi direnak; entzun gure otoitzak eta egizu kriseiluak pizturik zaindu ditzagula Zure Semearen otordura sartzeko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

**Atsegin bekizkizu, Jauna,
Santu Guztien omenez dakarzkizugun oparigaiak;
eta egizu, Zugan hilezkor aitortzen ditugunok
gure salbamenaz arduratuak senti ditzagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Oi Jainko,
Santu Guztien jaiegun honetan,
Zu aitortzen zaitugu harrigarri, Zu bakarrik santu;
eta zure grazia eskatzen dizugu,
zeure maitasun beteaz santutasun osora eraman gaitzazun
eta, lurrean erromes goazenon mahai santu honetatik,
zeruan prestatua duzun mahai santura igaro gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 2an
HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA

Agurra

Heriotza garaiturik hilen artetik piztu zen Kristo izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Hildako senideak gogoan ditu gaur Eliza osoak. Bada, San Agustinen otoitz bat gaur gogoan duguna: «Jauna ez dizut aurpegiratzen senide hau kendu izana; baizik eta eskerrak ematen dizkizut eman zenidalako». Gu ere esker onez, gu ere erromes garela gogoratuz eta hildakoen aldeko otoitzak on egiten digula jabetuz Eukaristia ospatzera gatoz.

Damu-otoitza

Senideok, apaltasunez beterik jo dezagun errukiaren iturrira eta eska dezagun gure bekatu guztien barkamena:

—Aitortzen diot...

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

—Erruki, Jauna... Kristo, erruki... Erruki, Jauna...

Otoitza

**Entzun, Jauna, bihotz onez, gure eskariak
eta sendotu hilen artetik piztua den
zure Semeagan dugun fedea,
hildako gure senideak piztuko diren itxaropena ere
gugan sendoagoa izan dadin.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Fededunen zoriona eta zintzoen bizia zaren Jainkoa,
Zuk salbatu gaituzu zeure Semearen heriotzaz eta piztueraz;
erruki zaitetz hildako gure senideez
eta egizu, piztueraren misterioa sinetsi dutenez gero,
goza dezatela betiko zorionaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Oi Jainko, zeure Seme bakarra, heriotza garaiturik,
zeruko aintzara sarrarazi zenuen;
egizu, hildako gure senideek ere,
bizitza honetako izate hilkorra garaiturik,
betieran ikus zaitzatela Zu,
beren egile eta salbatzaile hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Irakurgaiak *Hainbat irakurgai proposatzen dira egun honetarako
Irakurgaiak liburuan. Hileta-mezarako ematen
diren etikak ere har daitezke. Hemen, erantzun salmoa
eta aleluia proposatzen ditugu:*

Erantzun-salmoa (*Sal* 27 [26], 1 eta 4abcd)§ *Denek**Bukaera*

R/. Jau-na-gan hi-lak bai do-ha - tsu, ha-ren au-rre - an zo-ri-on - tsu!

Batek

V/. Jau - na dut ar - gi, Jau - na o - sa - sun: nork ni i - zu - tu?
Gau - za ba - kar bat Jau - na - ri di - ot nahi es - ka - tu:



Jau - na dut la - gun, nork be - har nau ni i - ka - ra - tu.
Bi - zi nai - ze - no be - re e - txe - an na - za - la har - tu.

Aleluia (*Mt* 25, 34)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



∇. Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok;
hartzazue munduaren **sortzetik**
zuentzat prestaturik dagoen **erreinua**. R.

Homiliarako argibideak*Oroimena duten erromesak*

On egiten digu hildakoen egun honek. Erromes gabela oroitazten digu, eta bidean goazela zeruan bizitzera deituak garelarik; ahaztu ez dezagun hemen ez gaudela betirako, baizik eta bizitza hobe eta amaiezina dugula helburu.

Heriotza zerbait serioa da, zalantzarik gabe. Gertu tokatzen zaigunean minez betetzen gaitu, eta zalantzaz, kezkaz eta beldurrez ere bai. Galderak sortzen dizkigu, heriotza misterio bat delako. Kristok berak ere negar egin zuen Lazaro adiskidearen heriotzan eta beldurra eta ezina nozitu zituen Bere heriotza gertu ikusi zuenean.

Guk ordea fedearen begiekin begiratzen diogu heriotzari. Heriotza bera da, baina begiratua ezberdina. Kristoren pazkoak argitzen duelako, ez misterio hori edo zailtasun hori deseginez, bain bai zentzuz bizitzen lagunduz; eta horrela, etorkizunari itxaropenez begiratzen laguntzen digu. Gure etorkizuna Berri Onez betetzen duelako, itxuraz dena ilun eta gordin gertatzen bada ere. Ez dakigu egiaz nola, baina sinesten dugu heriotzak ez duela azken hitza. Jainkoak bizitzarako sortu gaitu. Era berean Kristoren gurutzea ere ez zen azkena izan, aintzazko bizi beterako bidea baizik.

Mezetako testuek laguntzen digute gure heriotza Kristoren heriotzaren ikuspegitik begiratzen: «Bera da hilen arteko lehen Semea», Bera da «piztuera eta bizia», Berari begira aitortzen dugu Kristo piztu zen bezala gu guztiok ere piztuko garela azken egunean.

Meza oro gogoan ditugu hildakoak, ez gaur bakarrik. Eukaristi Otoitzean bat egiten dugu «sinestearen ezaugarriarekin joan eta orain bakezko lotan diren» hildako senideekin. Kristau ez zirenak ere gogoratuz, hildako guztiak gogoratzen baititugu, Jainkoak «bakarrik dakiela fededun hil diren guztiak» aipatzean. Guztientzat eskatzen diogu Jaunari atsedena eta bizi betea eta erregutzen diogu har ditzala Bere Erreinuari, Jainkoaren aurpegiaren argia goza dezaten.

Eukaristia da hildakoen aldeko otoitzik ederrena. Horregatik esaten diogu Jaunari: «ireki iezaiezu, Jauna, hidako gure senideei argi eta bake den zure etxea»; edota «zure Semearen sakramentua harturik, gure senide hilen alde eskatzen dizugu: Kristoren pazko-misterioan garbituta, zorion betea iritsi dezatela piztuera-egunean...».

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz konfiantzaz beterik errukiaren Aitari eta eska diezaiogun Jaunagan hil diren gure senideen betiko atsedena:

- Kristok, bere heriotzaz heriotza suntsitu eta bere piztueraz mundu guztiari bizia eman zionak, eman diezaiela argia eta betiko zoriona gure anai-arreba hildakoei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, errukiaren maisuak barka diezazkiela hildakoei, gogapen, hitz eta egitez eta egin beharrak ez eginez egin zituzten bekatu guztiak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, Eukaristiako ogiaz eta Liburu Santuko hitzaz janaritzen gaituenak, sendo dezan Eliza santua, tristeziaren eta ezin-ulertuaren kateekin loturik daudenentzat poz eta argi izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, bere mahaiaren inguruan bildu gaituenak, bil gaitzala gero ere, hildako zintzo guztiekin batean bere erreinuko mahai santuan, gizaldi eta gizaldietan Jainkoa ikusi eta gores dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun gure otoitzak, Jainko Jauna, zabaldu Zure Erreinuko atea gure senide hildakoei, Kristo Jaunaren piztuera aintzatsuan parte izan dezaten betiko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

**Begira Jauna, begi onez, gure eskaintza honi,
hildako fededun guztiak zeruko aintzan onar ditzazun
bere maitasun-misterioan bat egiten gaituen zure Semearekin.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Jainko ahalguztidun errukitsua,
sakrifizio honetan eskaintzen den Kristoren odolaz
ken itzazu hildako zure zerbitzarien bekatuak,
eta egizu, zure bihotz onak egin ditzala gero eta garbiago
Bataioko uretan garbitu zenituenak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Edota:

**Hartu, bihotz onez, Jauna,
Kristogan lo dauden gure senide guztien alde
egiten dizugun eskaintza;
zure Semearen sakrifizio bakarrari esker
heriotzaren lokarrietatik askaturik,
irits dezatela betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Egizu, Jauna, hildako gure senideak
sar daitezela argi eta bake den bizilekura,
haien alde ospatu baitugu pazko-sakramentua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Edota:

**Gugatik hil eta aintzaz piztu zen
zure Semearen sakramentua harturik,
apalki eskatzen dizugu, Jauna, hildako gure senideen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
irits dezatela piztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Edota:

**Eskaini dizugun sakrifizio honen bidez,
isur ezazu, Jauna, zeure erruki ugaria
hildako gure senideen gainera;
eta Bataioaren grazia eman zenienei
emaiezu betiko zorionaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 5ean
URTEAN ZEHARREKO XXXI. IGANDEA

Agurra

Biziaren Jainkoa izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Elkarren zerbitzuan jarduten garen heinean gara Jainkoaren zerbitzari. Hori da bidea, Jesusen eredu apal eta bihozberari jarriatuz. Zerbitzu hori Eukaristiari lotua dago, Jesusen eskaintza; Eukaristiatik sortzen da Eliza zerbitzaria. Ezinbestekoa zaigu, beraz, Jesusek oroigarria eginez bildu eta Hark bidaliak garelara sumatzea eta ospatzea. Has gaitezen itxaropenez.

Damu-otoitza

Aitor dezagun bekatari garelara eta eska diezaiozun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun errukitsua, zure laguntzaz
zerbitza zaitzakete ongi eta duintasunez zeure fededunek;
egizu, joan gaitezela inolako eragozpenik gabe
Zuk agindutako ondasunetara.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren aintzarako gabiltzala esanez geure buruak aberastea ez da zuzena. Jainkoak nahi duen egiazko kultua, hau da, otoitza, pertsonenganako zerbitzuan gauzatzen da.

Lehenengo irakurgaia (*Ml* 1, 14b–2, 2b. 8-10)

Malakiasen Profezia liburutik

«Errege handia naiz Ni –dio Jaun ahalguztidunak–, eta begirune diote herriek nire izenari. Orain, apaizok, hona hemen zuentzako oharpena: Entzun nahi ez baduzue eta nire izenari aintza emateko axolarik ez baduzue –dio Jaun ahalguztidunak–, madarikazioa bidaliko dut zuen gainera.

Zuek, apaizok, okertu egin zarete bidetik eta asko eta asko erorarazi duzue zeuen irakaspenez. Hautsi egin duzue Nik Leberekin nuen ituna–dio Jaun ahalguztidunak–. Horregatik, Nik ere mespretxagarri eta kaxkar egingo zaituztet herri guztiarentzat, nire bideak jarraitu ez dituzuelako eta erabakiak nor zein den begiratu hartu dituzuelako.

Ez al dugu guztiok Aita bat bera? Ez al gaitu guztiok Jainko berak egin? Zertan gabiltza, bada, elkar engainatzen, Jainkoak gure gurasoekin egin zuen ituna hautsiz?».

Erantzun-salmoa (*Sal* 131 [130], 1. 2. 3)

Ez e- gon, Jau - na, ni-gan-dik u - rrun; zu-re - a nau -
zu, za - toz - kit la - gun.

- ∞. Jauna, nire bihotza ez da handinahi,
ez nire begiak ere gorazale;
ez nabil gauza handien atzetik,
gainditzen nauten harrigarrien atzetik. R̄.
- ∞. Ostera, isil eta bare dut barnean gogoa,
haurtxoa amaren altzoan bezala,
haurtxoa bezala dut barnean gogoa. R̄.
- ∞. Itxaron, Israel, jaunagan,
oraindanik betidaino! R̄.

Bigarren irakurgaia (*1 Ts* 2, 7b-9.13)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik
Senideok: Maitasun samurrez jokatu genuen zuekin, bere haurrak
maitekiro zaintzen dituen amak bezala.

Hain bihotzeko zintuztegunez, prest ginen, Jainkoaren Berri Ona
ez ezik, baita geure bizia ere zuei emateko. Hainbestearino maite
zintuztegun! Senideok, izan gogoan gure nekeak eta ahaleginak; gau
eta egun egin genuen lan zuetako inorentzat zama ez izategatik,
Jainkoaren Berri Ona hots egin genizuenean.

Horregatik, eskerrak ematen dizkiogu etengabe Jainkoari; izan ere, haren hitza hots egin genizuenean, onartu zenuten, ez giza hitz huts bezala, Jainkoaren hitz bezala baizik; hala da, izan ere, eta lanean ari da zuengan, sinesten duzuenongan.

Aleluia (Mt 23, 9b. 10b)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

∇. Bakarra da zuen Aita, zerukoa,
eta bakarra zuen gidaria, Kristo. ∇.

Ebanjelioa (Mt 23, 9b-10b)

Homiliarako argibideak

Bihotz zintzoaren zerbitzua

Berriz ere sustraietara garamatza Jesusek: ez irakasle, ez guraso, ez gidari, ez nagusi. Historiari begiratuta, esamoldeei dagokienean behintzat, badirudi ez garela Jesusen esanekin oso leial izan. Aitortu beharra dago, ordea, arazoak ez direla hitz hutsean argitzen.

Jesusen mezua argia da: Bakarra Aita: Jainkoa. Bakarra gidaria: Jesus. Zuek guztiok senide. Zuetan handiena bedi denen zerbitzari eta txikiena hartu lehenengotzat.

Hori da Jesusen eredia: bihozbera eta apala da. Gure jarrerak senide-giroa bultzatu behar du, zerbitzua, xalotasuna... ez farisearren itxurakeria eta handikeria.

Jesusen bizitzatik eta ikasbidetik datorkigun kristau-jokabidea hori da. Eta horixe bera da era zehatz eta praktikoa Paulok bigarren irakurgaietan islatu duena. Tesalonikarrei idatzi zien amak seme-alabak zaintzen dituen xamurtasunez zaindu dituela eta hain handia izanik beraiekiko maitasuna ez die Jainkoaren Ebanjelioa bakarrik eman nahi, baita bere burua beraiantzat eskaini ere.

Jainkoaren Hitza ez dugu irakurtzen, garai hartan zer gertatu zen jakiteko bakarrik, gure garaian eta gure bizitzan gaurkotzeko baizik. Azalean geratzea, hutsean indarrak galtzea, itxurari gehiagi erreparatzea garai guztietako arriskua da, dudarik gabe.

Aipatzen ditugu kristau edo katoliko ez praktikanteak. Baina, zein praktikaz ari gara? Maitasuna, errukia eta justizia praktikatzen ez baditugu ezin esan daiteke kristau praktikanteak garenik. Kontua ez da igandearekin kunplitzea bakarrik, hori ere ezinbestekoa bazaigu ere; norberekeria gaingitu eta senide garelako konturatzea, elkarbizitza eta karitatea bizitzea beharrezkoa dugu.

Jesusek gizakiaren bihotza aldatu nahi du; horretara iritsi gabe azalekoan, bigarren mailako gauzetan galduak geundeke.

Sarritan leporatzen digute elizatik urrunduta dabilzanek, itxurazaleak edo koherentzia gabeak garelako. Ez du tesan nahi hori besterik gabe onartu behar dugunik. Baina gure bizitza aztertzea ekarri behar liguke. Kristauak leial izan behar du Jesusen esanarekin. Leial ospatzen duenarekin. Leial irakasten duenarekin. Eta bizitzen duena ospatu, beste senideekin batera.

Gure boterea zerbitzua izan behar du, gure handitasuna txikien ondoan egotea. Inor azpian hartu gabe. Jesusen erara, munduko neurriei eta jokabideei buelta ematea dagokigu; hori da kristauok egin behar dugun zerbitzuaren iraultza. Kanpotik eta barrutik zerbitzari direnen iraultza.

Egiazko erlijio-bizitza bihotz garbian agertzen da, Jesus Zerbitzaria eredu eta maisu izanik.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta eman diezagula behar dugun laguntza:

—Jainkoak isur dezala Elizarengan apaltasun eta sendotasun espiritua eta sorrarazi ditzala Ebanjelioaren zerbitzari leial izango diren era guztietako bokaziodunak. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak ernaraz dezala agintariengan on egiteko borondatea eta hauek erraz dezatela guztiontzat ongizatezko eta justiziazko bizimodua. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak lagun diezagula guztioi gure zailtasun eta ezinetan, eta eman diezaiela hiltorian daudenei bakea eta atsedena. Egigun otoitz. R/.

—Jainkoak sendo gaitzala fedean eta eman diezagula guztioi beti on egiteko laguntza. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, gure eskariak eta egizu Zure izena goratzeko eta salbatzen gaituen Zure hitza onartzeko prest ager gaitzela beti; ez dezagula Ebanjelioa hitzez bakarrik hots egin, baizik eta gure egintzetan bizi dezagula Zure Semearen egiazko jarraitzaile garelara adieraziz. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

**Jauna, zure Elizak egiten dizun sakrifizio hau
izan bedi Zuretzat opari garbi
eta guretzat zure errukiaren iturri santu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, jarraitu gudan zeure salbamenaren egintza,
hartu dugun sakramentuaz janariturik,
agindutako ondasunak hartzeko
zure laguntzaz presta gaitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 12an
URTEAN ZEHARREKO XXXII. IGANDEA

Elizbarrutiaren eguna

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandea ospatzera bildu gara senideok. Kristauok ezin dugu bizi iganderik gabe, Jaun berpiztuaren eguna ospatu gabe. Eta ospakizun hori Elizan, elkartearen batasunean ospatzen dugu: Jauna noiz etorriko elkarrekin itxaroten dugula.

Gaur, Elizbarrutiaren eguna dugu. Elkarrekin, besteei eskainitako eliza bizia lortzen dugu. Egun berezia, gure ahalegin eta jardun guztientzat argitasuna eskatu eta Elizbarrutiaren beharretarako diru-bilketa egiteko.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniona: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun errukitsua,
 urrundu gugandik eragozpen guztiak,
 gorputzez eta arimaz geure buruaren jabe izanik
 askatasun osoz zure nahia bete dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa jakinduria dugu. Jainkoa argi-emailea dugu, eta erakargarria, baina inoiz ez gaitu zapaltzen, gure askatasuna indartzen baizik. Onar dezagun bere hitza, barnetik berritu gaitzan.

Lehenengo irakurgaia (*Jak 6, 12-16*)

Jakinduria liburutik

Argitsua da jakinduria, itzalezina haren distira;
 nekerik gabe ikusten dute maite dutenek,
 baita aurkitzen ere haren bila dabilzanek.
 Irrikatzen dutenei, aurea hartzen die
 eta bere burua ezagutzera ematen.
 Haren bila goiz-goizetik doanak ez du nekerik izango,
 ate ondoan aurkituko baitu eserita.
 Hartaz gogoeta egitea da zuhurtziarik handiena;
 harengatik gaua esna ematen duena
 laster izango da kezkarik gabe,
 zeren jakinduria bera ibiltzen baita hara eta hona
 beraren duin direnen bila;
 onginahiz agertzen zaie bideetan
 eta beren gogoeta bakoitzean aurkezten.

Erantzun-salmoa (*Sal* 63 [62], 2. 3-4. 5-6. 7-8)

Zu - re e - ga - rriz dau - kat go - go - a, Jau -
na, e - ne Jain - ko - a.

- ∞. Jainko, Zu ene Jainko,
goizetik nabilkizu bila,
zure egarriz daukat gogo, zure irrikaz ni naizen guztia,
lur idor, agor, ur gabea bezala. ☩.
- ∞. Horrela egon nahi dut santutegian Zuriri begira,
zure indarra eta ospea ikusiz.
Bizia baino ederragoa baita zure maitasuna,
goratuko zaituzte nirere ezpaineak. ☩.
- ∞. Horrela nahi zaitut bedeinkatu neurere bizitzan,
eskuak altxatu zure izenean.
Jakirik gozoenez bezala naiz aseko,
eta nire ezpaineak poz-oihuz zaituzte goretsiko. ☩.
- ∞. Gaez ohean Zu zaitut gogoan,
Zuri otoitzean igarotzen ditut orduak,
Zu izan baitzaitut laguntzaile;
pozez egingo dut oihu zure hegalen itzalean. ☩.

Bigarren irakurgaia (1 Ts 4, 13-18) *Gako [] artekoa utz daiteke*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Ez dugu nahi hildakoen zoriaz zuek ezjakinean egoterik, atsekabetu ez zaituzten, itxaropenik ez dutenen antzera. Jesus hil eta piztu zela egiaz sinesten badugu, era berean, Jesusekin bat eginik hil direnak ere Jainkoak berekin hartuko ditu.

[Hau diotsuegu Jaunaren hitzean oinarrituta: guk, Jauna etortzean bizirik gertatuko garenok, ez diegu hil direnei aurrea hartuko. Zeren, goiaingeruaren oihuz eta Jainkoaren turuta-hotsez seinalea emanik, Jauna bera jaitsiko baita zerutik, eta aurrea, Kristorekin bat eginik hildakoak piztuko dira; gero gu, artean bizirik izango garenok, haiekin batean eramango gaituzte hodeietan, airean, Jaunarekin elkartzera. Eta horrela, beti Jaunarekin egongo gara. Adore ezazue, beraz, elkar hitz hauekin.]

Aleluia (Mt 24, 42a. 44)

∇. Zaudete erne, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea. ☩.

Ebanjelioa (Mt 25, 1-13)

Homiliarako argibideak

Gure azkenari begira

Gaurko ebanjelioak oinarrizko egia hau gogorarazten digu: gure bizitza senarrari itxarote bat da. Eta bizitzaren une nagusi hori, heriotzan gertatuko da, ez dugu ahaztu edo baztertu behar hori, prestatu baizik. Gaur izan daiteke egun ona horretarako. Gainera, bigarren irakurgaietan, hil ondoren zer gertatuko zitzaien kezkatuta zeudenei erantzuten die Paulok. Gu ez gara horretaz asko kezkatzen, behar bada, beste muturrean gabilta: ez dugu horretan pentsatu ere egiten. Eta heriotza gure bizitzatik ezkutatzea ez da ona. Gizatasuna kentzen dio gertakari garrantzitsu horri. Hoztasuna ematen. Kristauok beste era batera bizi behar genuke heriotza.

Heriotza oroitzeak helburu hau izan behar luke lehenik: gaitzaren gainetik, heriotzak hain gordin agertzen duen giza ahultasunaren gainetik, bizi betea ematen digun Jainkoaren maitasuna dagoela konturatzea. Tesalonikarren desioa horixe da: Jaunarekin betiko egotea; Jainkoaren egarria da gure bizitzaren ortzemuga osatu behar lukeena.

Giro horretan hartzen du indarra eta zentzua gaurko ebanjelioak egiten duen deiak, bereziki, birjina zentzugabeei egiten dien deiak.

Ezkon-bazkari hura gertakari erabakigarria den: guretzat, Jainkoaren erreinuaren betetasuna irudikatzen duen sinbolo ederra gertatzen da. Gezurra dirudi, honelako gertakari ederra pasatzen utz dezakeen jende zentzugabea egotea: argia eman behar duen oliorik gabe jendea ibiltzea, bizitzan lo hartzen duen jendea; une berezi eta ederraren zain arretaz eta erne biziko ez den jendea egotea... bai penagarria! Senargaiaren zain atean egongo ez den jendea...!

Jesusek galdetu digu, azken finean, berarengan eta bere Erreinuarengan federik badugun. Sinesten badugu Beraren zain biziko gara. Sinesten badugu, gure bizitza osoa ontziak olio

betetzen igaroko dugu, ahalik eta argitsuen izateko. Kontura gaitezen: Jesusek gaur darabilen eredia ez da negatiboa (zerbait egitea galerazten diguna “bekaturik ez egitea” eskatzen diguna), jarrera aktiboa eskatzen digu: ekin, egin, gure bizitza martxan jarri, olioia bildu. Datorren igandean zehaztuko zaigu arretarako dei honen bidea eta Kristo Errege egunez konturatuko gara zer den argitzen gaituen olioia.

Lehenengo irakurgaiak osatu egiten digu jakinduria handiz ebanjelioko irakaspena. Ezin da aitzakiatzat hartu oliorik ez edukitzeko, olioaren beharra ez ezagutzea, ez jakitea. Bihotza ebanjelioaren zerbitzura apal jarri duenak badu jakinduria aski argiaren beharraz jabetzeko eta argirako bidea prestatzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin dezagun otoitza gizaki guztien alde, inoiz falta ez dezaten gure eskuzabaltasuna:

- Eliza barne-bakez bizi dadin beti, honela Ebanjelioaren testigu gartsu izan dadin eta Jauna erdian izateaz poztu dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunei eman diezaiela Jaunak jakinduria eta zuhertasuna, guztien ongizatearen alde jarduteko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Munduan gehien sufritzen dutenak beren ezinetatik arinduak aurki daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Guk guztiok, kristau eran jardun dezagun gure eginkizun guztietan, gure lanek fruitu onak eman ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.

Jauna, atseginez begiratzen diezu Zure jakinduria maite dutenei, eta Zure bila dabilzanezi zeure burua agertzen diezu; entzun gaitzazu eta egizu Zure Semearen ezkon otordurako gai izan gaitzela, eta gure kriseiluak itzali gabe atera gaitzela Bere bidera. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Orain egitera goazen diru-bilketa Elizbarrutiaren beharretarako izango da.

Oparigaien gaineko otoitza

**Begira, Jauna, begi onez gure sakrifizio honi,
eta egizu, har dezagula parte fede handiz
orain sakramentuz ospatzen dugun zure Semearen nekaldian.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure dohainez janariturik, eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
eta zure bihotz onari eskatzen diogu,
sakramentu honetan eman diguzun
Espiritu Santuaren indarrak
iraun dezala gudan
eta eman diezagula leialtasunean bizitzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 19an

URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA

Pobreen Mundu Jardunaldia

Agurra

Gure sinesmena ospatzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batzar honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristau urtearen, liturgi urtearen amaierara gerturatzen ari gara: gaurko ospakizunak erne bizitzeko deia egiten digu, historiaren amaieran Jaunarekin topo egiteko prestatuz.

Gaur, gainera, Eliza osoak Pobreen Mundu Jardunaldia ospatzen du, goiburu honekin: «Ez eman bizkarrik behartsuari» (*Tb* 4, 7). Behartsuengana behar adina gerturatzen garen eta are gehiago, Kristoren behartsu izatea geure jarrera bihurtzen dugun hausnartzeko egun egokia dugu gaurkoa.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gure **ba**kea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **ogi** egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **ema**ten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko gure Jauna,
egin gaitzala zure laguntzak beti alai zure zerbitzuan,
ondasun ororen iturri zaren horri emanak
bizitzea baita guretzat
egiako zorion betea eta iraunkorra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Adi egotea ez da besoak gurutzatuta gora begira egotea. Bai ordea, munduan dugun erantzukizunari leial izatea. Erreinua eraiki behar dugu, adi egonez: lo hartu gabe.

Lehenengo irakurgaia (*Es 31, 10-13. 19-20. 30-31*)

Esaera Zaharrak liburutik

Nork aurkituko etxeoandre arduratsua?
Harribitxiak baino askoz baliotsuagoa da.
Konfiantza osoa du senarrak harengan,
eta ez da sekula beharrea aurkituko.
Zoriona ekartzen dio, ez zoritxarra,
bizitzako egun guztietan.
Artilea eta lihoa eskuratzen ditu,
gogotsu egiten dute lan haren eskuek.

Eskuaz goruari heltzen dio
eta atzamarrez ardatzari eragiten.
Dohakabeari eskua zabaltzen dio
eta behartsuari laguntza ematen.

Gezurrezkoa da xarma, hutsala edertasuna;
goresgarria, ordea, Jaunari begirune dion emakumea.
Emazkiozue eskerrak bere eskuen lanagatik,
goretsi herri osoaren aurrean berak eginagatik.

Erantzun-salmoa (*Sal* 128 [127], 1-2. 3. 4-5)

Jau - na - ren bel - dur den gi - zo - na, hu - ra
bai de - la do - ha - tsu - a.

- ✠. Zorionekoa Jaunari begirune **diona** eta haren bideetan **dabilena**!
Zeure lanaren fruitutik **duzu** jango,
zoriontsu izango zara eta ongi zaizu **joango**. ☩.
- ✠. Emaztea mahatsondo emankorraren **antzeko** zure etxe **barnean**;
seme-alabak olibondo-kimuen **antzeko** zure mahai **inguruan**. ☩.
- ✠. Hara nola izango den bedeinkatua ' Jaunari begirune **diona**!
Bedeinka zaitzala Jaunak **Siondik**, goza zaitetzela Jerusalemen **zorionaz** zeure bizitzako egun **guztietan**. ☩.

Bigarren irakurgaia (1 Ts 5, 1-6)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jaunaren etorrera noiz eta nola izango den ez duzue nik idatzi beharrik; zeuek dakizue aski ongi Jaunaren eguna lapurra gauetz bezala etorriko dela.

«Bakea eta lasaitasuna» esaten ari direnean, orduan ustekabean etorriko zaie hondamendia gainera, haurdun dagoenari erdiminak bezala, eta ez dute ihes egiterik izango. Zuek, ordea, senideok, ez zarete ilunpean bizi, egun horrek lapurrak bezala harrapatzeko zorian; guztiok argiaren eta egunaren seme-alaba zarete. Ez gara gauarenak, ez ilunarenak. Beraz, ez dezagun lorik egin besteek bezala; gauden erne, eta izan gaitezen neurritsu.

Aleluia (Jn 15, 4a. 5b)

Al - le - lu - ia, al - le - lu - ia.

∇. Zaudete Nigan, Ni Zuengan bezala, **di**o Jaunak;
norbait Nigan **ba**dago,
horrek fruitu asko **em**ango du. ∇.

Ebanjelioa (Mt 25, 14-30)

Homiliarako argibideak

Zerbitzari leiala

Behin baino gehiagotan salatu du Aita Santuak diruaren sasi-jainkokeria. Diruak agindu egiten digu, gure zerbitzura egon beharrean. Jarrera horren atzean, etika zapuztu izana dago, Jainkoa baztertu izana. Dirua eta boterea bere tokian jarraraziko bailiguke ez baztertzek. Jainkoa mehatxu gertatzen da merkatuaren indarrentzat, Jainkoa ez baita erabilgarria, manipulagarria.

Gaur ere bizi-bizirik jarraitzen duen gertakari bat jarri zuen agirian Jesusek: aberatsak gero eta aberatsago dira eta ez dutenei, duten gutxia ere kendu egiten zaie. Jesusek ez zuen horrekin aberaste hutsaren irrika bedeinkatu nahi izan, bizitzarako gogoia eta itxaropena gure ahaleginez eta arduraz, ekimenez eta jardunaz uztartu behar dugula irakatsi baizik.

Jesus ez da ebanjelio horretan ekonomiaz hari, bizitzaz baizik: zer egin behar du bakoitzak bizitzari zentzua emateko? Jesusek dio gure egintzekin egiten dugula zentzuzko gure bizitza. Hautsi egiten du kontenplazio hutsa defendatzen duen eta ekintza baztertzen duen greziarren mentalitatearekin. Itun Zaharrak zein Berriak aurkezten dizkigun bizitza-ereduak gizon eta emakume ekintzaileak dira (Es 31, 10-31). Ekintzak, zalantzarik gabe, berekin behar du hausnarketa erabakiak hartzeko. Horregatik da beharrezkoa beti erne eta zain egotea (1 Ts 5, 1-6). Erabakiak eta egintzak dira gizakien bizitza eta historia aldatzen dutenak.

Ardura da ekintza horiek oinarrian behar duten jarrera. Denok gara Jainkoagandik jaso ditugun dohainen arduradun, erantzule: bizitza da lehen dohaina. Jaso ditugun dohain horien erabiltzaile gara, eta erabilpen horren kontua eman beharko dugu dohain emailearen aurrean. Bizitza, parabolaren arabera, ez da gozatzeko eta

gastatzeko bakarrik. Bizitza emateko da, partekatzeko, fruitu emateko, bizitza gehiago sortzeko. Ezin da lurpean ezkutatu. Dirua sortzen hain azkarra den egungo gizakia ahaztu egin da bizitzaren jakinduriaz eta sarritan gozamen hutsak erotu du. Bizi-irrika zentzugabeak biziaren kontrako kultura sorrarazi digu.

Kristau historian aipagarri eta eredugarri izan diren gizon eta emakumeak, jende ekintzailea izan dira normalean, bizitzarako oinarritzko bideak aurkeztu dizkigutenak: sakramentuak, otoitza, bizitzaren eguneroko azterketa, bidelaguntza espirituala, bizitzaproiektua... ezinbestekokak dira. Gure bizitzan Jesusen arabera aurrera egiteko plana behar dugu, arretaz eta gogoz. Orain ospatzen ari garen Eukaristia izan dadila grazia-iturri eta ongarri Jesus gure bizitzaren erdigune izan dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta onar ditzala onginahiz gure eskariak:

- Jaunak, on guztiaren sortzailea denak, dei egin diezaiela gaur ere erlijioso/erlijiosa bizitzan jarraituko dioten gizon-emakumeei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, indar guztien iturria denak, argi ditzala herrietako agintariak, bere eginkizunetan eta erabakietan asma dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, bizitzaren emalea denak, begira diezaiela errukiz gose direnei eta eman diezagula guztioi horiekiko arreta izateko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, maitatzeko agindu zigunak, eman diezagula etsaiak maitatzeko indarra eta inori gaitzik ez egiteko dohaina. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, gizakiaren esku utzi dituzu Zure ondasunak; entzun gure otoitzak eta egizu gure lanak ugari ditzala gure esku jarri dituzun dohainak eta erne bizi gaitezela beti, Zure Semeak, itzultzean, zintzo aurki gaitzan eta zerbitzari leialen antzera erreinuko pozetara sarrarazi. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

**Zuri, Jaun handi horri, aurkezten dizugun eskaintza honek
irits diezagula Zu leial zerbitzatzeko grazia,
eta eman diezagula betiko zorionaren fruitua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Sakramentuaren dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu zigun Eukaristia honek
handi dezala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 20an

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA

Agurra

Kristo, diren guztien Erregea, gerta dakizuela bake eta salbamen eta Haren maitasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Liturgi-urteari amaiera emanaz Kristo Erregearen jaia ospatzen dugu gaur. Bera da gure historiaren erdi-muina; Berarengana goaz, Bera dugu helmuga.

Gaur Bere mahaiari biltzen gaitu, Bere artzain-jarrera, Bere zerbitzu gogoa, Bere maitasun gozoa geure egin ditzagun. Eta gurutzeko eskaintzan agertzen digu handikiro bere Errege izatea. Gurutzea du tronua, arantzazkoa bere koroa. Berari aintza eta gorespen!

Damu-otoitza

Gurutzea du Kristok Bere errege-aulkia. Berari begiratuz, eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

- Jesus Jauna, gizaki guztien Sal**bat**zaile zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gu guztiontzat gizatasun **ere**du zarena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, guztion bihotzak Zuregana era**kart**zen dituzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
diren guztien Errege den zeure Seme maitea ezarri zenuen
gauza guztien oinarri eta buru;
egizu onbera, izaki guztiek, bekatuaren uztarpetik askaturik,
Zu zerbitza zaitzatela beti eta goretsi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitza da kristauon egitasmo nagusia jasotzen dituenena. Entzun dezagun arretaz, eta jakin dezagun Erreinua gureganatzea bihotz-berriz bizitzea dela.

Lehenengo irakurgaia (Ez 34, 11-12. 15-17)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Ni Neu egingo naiz artaldearen kargu, Neu arduratuko hartaz. Artzaina, artaldea sakabanatu zaionean, ardiez arduratzen den bezala, halaxe arduratuko naiz Ni neure ardiez; egun lainotsu eta ilunean sakabanuturiko toki guztietatik aterako ditut.

Nik Neuk larratuko ditut ardiak eta Neuk harraraziko diet atseden –dio Jainko Jaunak–. Ardi galduaren bila joango naiz, desbideratua artaldera bilduko dut, hanka hautsia lotuko, gaixoa indartuko; gizenak eta indartsuak zainduko ditut. Behar bezala larratuko ditut ardiak».

Zuei, ene ardi, hau diotsuet Nik, Jainko Jaunak: «Nik erabakiko dut auzia ardi batzuen eta besteen artean, aharien eta akerren artean».

Erantzun-salmoa (*Sal 23 [22], 1-3. 5. 6*)

∞. Jauna dut artzain, ez naiz ezeren **behar**rean;
 larre gurietan etzan**ar**azten nau,
 ur-bazter lasaira eramaten ‘
 eta indarrak dizkit **ber**ritzen;
 bide segurutik narama, ‘
 bere izenari ohore **eg**inez. ∞.

∞. Mahaia atontzen **di**dadazu
 etsaien **begi**-bistan;
 olioiz gantzutzen didazu **bur**ua,
 gainezka dut **edont**zia. ∞.

∞. Zoriona eta maitasuna **di**tut lagun,
 bizitzako egun **guz**tietan,
 eta Jaunaren etxean **bizi**ko naiz
 amaigabeko **egun**etan. ∞.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko 15, 20-26a. 28*)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

S

enideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala,

Kristorekin duten elkartasunagatik denak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da.

Jainkoak gauza guztiak menpean jarriko dizkionean, Semea bera menpean jarriko zaio gauza guztiak menpean jarri zizkionari, eta Jainkoa denetan dena izango da.

Aleluia (Mk 11, 10)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

∇. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrrena!
Bedeinkatua datorren erreinua,
gure aita Daviden erreinua! ∇.

Ebanjelioa (Mt 25, 31-46)

Homiliarako argibideak

Gose nintzen eta jaten eman zenidaten

Munduko desberdintasunak ikusita eta bizi dugun pandemia garaiak pobreak pobreago egin dituela antzemanda, Jainkoaren Erreinua

lantzera deituak gara: Zuzentasuna nahi dugu eta eskatu behar dugu denontzat, bereziki ahulentzat.

Itun Zaharrearantz erregea izan ohi zen zuzentasuna bideratzeko enkargua zuena. Artzain bezala ageri ohi zaigu sarritan, bere artaldea behar duen bezala larratzen duena (*Ez 34, 11-17*). Denak berdin tratatzea zen antzina injustiziarik handiena. Gaur egun bakoitzaren beharrak ez ditugu jartzen justiziaren gainetik... gehinez karitatez begiratzen diegu. Eta egia da karitaterik gabe ezin dela mundu zuzenik eraiki.

Azken Auziaren irudian suma dezakegu justizia gosea. Badirudi sinetsiak gaudela, mundu honetan zuzentasun bete ezinezkoa dela eta Jainkoak gutxienik egingo duela zuzengabekeriaren biktima izan direnen alde. Horrexegatik, Jesusek aipatzen duen azken auziak zerikusi izugarria du mundu honetan zuzentasuna bizitzeko izan dugun moduarekin (*Mt 25, 31-46*). Izan ere, erruki-egintzei buruzko azterketa izango da hura, errukia eta onginahiak bakarrik laguntzen baitugu sufritzen duen gizakiarekin zuzenak izaten. Erruki-egintzek eragin zuzena dute munduak zuzentasunez tratatzen ez dituen pertsonekin: gosetuekin, etorkinekin, ondasunik ez dutenekin, gaixoekin, presoekin...

Jesusen auzia Bere bizitzarekin eta Erreinuaren iragarpenarekin bat dator. Gizarteko baztertu guztientzat da, bereziki, Erreinu. Beraiek dira Erreinuaren lehentasuna dutenak. Jesus bera eta Bere Erreinu zauritu guztiengan aurkitzeko gai direnak bakarrik dira, egiaz, Jainkoaren Erreinuaren barneratzeko gogoan agertu dutenak.

Ebanjelioaren arabera, baztertuenganako arreta izan zutenek ez eta arreterik izan ez zutenek ere ez, Jesus ez zuten aurkitu haiengan. Ez ziren konturatu Erreinuaren afera mundu honetan jokatzeko dela, ez bestean. Erreinuari buruzko ilusioak jabetu dira, zoritxarrez, gizakien

bihotzez. Batzuk oraindik uste dute Erreinuak zerikusia duela mundu honetako indarrekin. Jesus da gaurko parabolak aipatzen dituen egintza onak erarik bikainenean bizi izan zituena. Erruki-egintza horiek betetzea da kontua... behartsuen eta zaurituen zerbitzura jarritz; haiengan Jesus aurkituz. Egun batean horiekin guztiakin eta Jesusekin batera Aitaren Erreinuak elkar aurkitzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Kristori, Bera baita gauza guztien Jauna eta Erregea:

- Elizako artzain eta kide guztiak saia daitezela beti gizadi osoa Jainkoarengana gerturatzeko eta Kristoren gurutzaz denei bake-bidea eskaintzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Erligio eta kultura guztietan ezkutuan dagoen Ebanjelioaren haziak frutu eman eta ager dadin, guztiak ezagutu dezaten Kristo dela Jauna Jainko Aitaren aintzarako. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bekatuak, atsekabeak edo ezinak harrapatuta dauden guztiak Kristoren erreinuko askatasuna ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur Kristo Erregearen festaburua ospatzen dugun guztiok izan dezagula egun batean zeruko oinordekotza, argiaren erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko ahalguztidun betierekoa, Zure erreinua historiaren gertaera eta arazoaren artean eratzeko, Zure Semea gizakien errege bakar eta artzain nagusi egin duzu; entzun gure otoitzak eta sendotu guran Kristoganako fedea, heriotza garaitu eta bizia garaile aterako duen eguna itxaro dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

**Onartu, Jauna, zure nahia betez ekarri dizugun eskaintza hau;
egizu, bete ditzagula beti zure aginduak,
Zuretzat eskaintza atsegingarri gerta gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko biziaren ogiaz janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, diren guztien Errege den Kristoren
esaneko izateaz pozten garenok
berarekin zeruko erreinuan betiko bizi gaitezela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

